

Tolerantziarik ez, ondare publiko eta zerbitzu publikoen aurkako edozein erasoren aurrean

Asteburu honetan pegatinak eta mezu faxistak agertu dira Leioako kaleetan, hezkuntza erakundeetan eta ekipamendu publikoetan. Ez da estremismoetatik ondare publikoa erasotzen den lehen aldia gure herrian, eta beste behin ere, aski dela esateko beharrean gaude.

Leioa erabili dute, oraingoan, euskararen, euskal erakundeen, migrazioaren eta herritarren aurkako gorroto mezuak zabaltzeko. Gainera, diktadura faxistaren sinbolo eta irudiak erabili dituzte.

Ez da gertaera isolatua. Beldurrarazte-kanpainak dira, muturretatik demokrazia, ordezkaritza demokratikoa eta gizarte osoaren adierazpen-askatasuna ikaratu eta mugatu nahi dituztenak.

Leioak erreferentzia izan behar du bizikidetzaren eta ideia desberdinen inguruko lanean, eztabaida soziala, herritarren parte-hartzea eta demokrazia sustatuz.

Udal honetatik honako hau adierazi nahi dugu:

- a) Ez ditugula askatasun publikoak mozteko ahaleginak onartuko
- b) Horrelako mezuek eta jarrerek ez dutela lekurik gure udalerrian
- c) Udal hau eragile aktiboa izango dela gure askatasunaren, aniztasunaren, demokraziaren eta zerbitzu publikoen alde

Ninguna tolerancia contra cualquier agresión al patrimonio público y los servicios públicos

Este fin de semana han aparecido pegatinas y mensajes fascistas en calles, instituciones educativas y equipamientos públicos de Leioa. No es la primera vez que desde los extremismos se ataca el patrimonio público en nuestro pueblo, y una vez más, nos vemos en la necesidad de decir basta.

Han utilizado Leioa, esta vez, para difundir sus mensajes de odio contra el euskera, las instituciones vascas, la migración y la ciudadanía. Además, lo han hecho con símbolos e imágenes de la dictadura fascista.

No es un hecho aislado. Son campañas de intimidación que, desde el extremismo, pretenden amedrentar y coartar la democracia, la representación democrática y la libertad de expresión del conjunto de la sociedad.

Leioa debe ser referencia en el trabajo por la convivencia y el respeto de las diferentes ideas, fomentando el debate social, la participación ciudadana y la democracia.

Desde este ayuntamiento queremos manifestar:

- a) Que no consentiremos que se cercenen las libertades públicas
- b) Que este tipo de mensajes y actitudes no tienen cabida en nuestro municipio
- c) Que este Ayuntamiento será un agente activo por la libertad, la pluralidad, la democracia y por la defensa de los servicios públicos.

Euzko Abertzaleak



PSOE

PP



Podemos

